



**EKINTZAILETZAKO TOKIKO PROIEKTUETAN ENPRESA-
JARDUERA BERRIAK ABIAN JARTZEA SUSTATZEKO
DEIALDIAREN IRAGARKIA**

LAGUNTZAREN XEDEA	Negoio-idea bat eduki eta ekintzailetzako tokiko proiektuetan parte hartzen duten pertsona ekintzaileen proiektu berriak sustatzea.
DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN JARDUKETA	Enpresa edo negozio-proiektu bat abian jartzeko behar diren ekintzak garatzea.
ONURADUNEN ESKAKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> • EAE-n biziitzea. • 18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago edukitzea. • Langabe egotea eta Euskal Enplegu Zerbitzuan- Lanbiden izena emanda egotea. • Enpresa edo negozio berria ezartzeko bideragarritasun plan bat edukitzea. • Lanbidek laguntzaile gisa baimenduriko erakundeetako batean egotea ekintzailetzarako aholkularitza eta babes prozesu batean (Meatzaldeko Behargintza diru-laguntza hauek kudeatzeko erakunde laguntzailea da).
PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN KONPROMISOA	<ul style="list-style-type: none"> • Ideia enpresariala aztertzeraz eta garatzeraz bakarrik dedikatzea aholkularitza hasi (Meatzaldeko Behargintzaren kasuan 2014ko urriaren 29an hasiko da aholkularitza prozesua) eta hiru hilabetez. • Erakunde laguntzaileak definituriko ideia enpresarialak sortzeko eta garatzeko aholkularitza eta laguntza jarduketa guztietara joatea. • Alta ematea Jarduera Ekonomikoen Zergan, 2015eko urtarrilaren 29tik 2015eko apirilaren 28ra.
LAGUNTZAREN ZENBATEKOA	<ul style="list-style-type: none"> • 2.000 euro.
ESKAERA, AGIRIAK ETA AURKEZTEKO EPEA	<p>Eskaerak Meatzaldeko Behargintzan eta Muskiz, Abanto-Zierbena, Trapagaran eta Zierbenako Tokiko Garapen Agentzietan, bulego horietan emango dizkieten eskaera-orri ofizialean, azaroaren 7a baino lehenago. Eskaerarekin batera honakoak aurkeztu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona sustatzailearen NAN. • Errolda ziurtagiria. • Lanbideko DARDE delakoa. • Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, programan parte hartzea egiaztatuko duena.